



PRENTSA-OHARRA

Azaroaren 13a, Pobreen VI. Mundu Jardunaldia

**Frantzisko Aita Santuak “daukagun gutxi hori ezer ez dutenekin partekatzeraz”
gonbidatzen gaitu, “inork sufritu ez dezan”**

Espainiako Gotzainen Biltzarrak eta Caritasek deitu dute jardunaldia, eta hau da aurtengo leloa: "Jesukristo guregatik egin zen pobre".

Madril, 2022ko azaroaren 7a.- Datorren azaroaren 13an, igandean, Pobreen VI. Mundu Jardunaldia dela-eta, Espainiako Gotzainen Biltzarrak eta Caritasek beren ahaleginak batu dituzte berriro ere, kristau-komunitateak eta gizarte osoa mobilizatzeko Frantzisko Aita Santuak deitutako urteroko hitzordu horren helburuak lortze aldera.

Jardunaldi hori sustatzeko ideia 2016ko azaroaren 13an sortu zen Errukiaren Urte Santuaren itxiera-ekitaldian, Aita Santua San Petri basilikan pertsona baztertuentzako Jubileua ospatzen ari zenean. Sermoia amaitzean, Frantziskok desio bat adierazi zuen modu espontaneoan: «gaur Pobreen Jardunaldia izatea nahi nuke».

Seigarren jardunaldi honetan, “Jesukristo guregatik egin zen pobre” lelopean, Frantzisko Aita Santuak elkartasunerako deia egiten du indarkeriak eta gerrak zauritutako mundu batean. Ekialde Hurbileko, Erdialdeko Afrikako eta, orain, Ukrainako gatazkek eragin dituzten milioika errefuxiatu ikusirik, aita santuak “daukagun gutxi hori ezer ez dutenekin partekatzeraz” gonbidatzen gaitu, “inork sufritu ez dezan”.

Zenbait herrialdek segurtasun eta egonkortasun-ondarea lortu dute hazkunde ekonomikoari lagundu dioten legee eta ekimen pribatuari esker; Frantziskoren iritziz, ondare hori orain partekatu egin daiteke “salbatzeko eta bizirauteko beren burua etxea eta herrialdea uztera behartuta ikusi duten haiekin”. “Gizarte zibileko kide gisa, eutsi diezaiozun balioen deiri; hau da, askatasunaren, erantzukizunaren, senidetasunaren eta elkartasunaren deiri”, gehitu du.

Aita Santuak gogorarazten du karitatea “ez dela betebehar bat, baizik eta maitasunaren seinale, Jesusek berak adierazi zuen bezala”. “Pobreekin eskuzabalak izateko motibo indartsuena Jainkoaren Semearen hautua da, bere burua pobre egitea aukeratu baitzuen”, adierazi du.

Frantziskok azpimarratu duenez, “azken urteetan bizi izandako ahultasun eta mugas-espereziak eta gaur egungo gerraren tragediak” erakutsi behar digute "ez gaudela

munduan bizirauteko, baizik eta guztiei laguntzeko bizitza duina eta zoriontsua lortzeko aukera izaten". "Jesusen mezuak bidea erakusten digu, eta ikusarazten digu badagoela zapaltzen eta hiltzen duen pobrezia bat, bai eta beste pobrezia bat ere, Jesusena, askatzen eta zoriontsu egiten gaituena".

Horregatik, gogorarazten du VI. Mundu Jardunaldi honetan beharrezkoa dela "ahalegin bat egitea inori beharrezkoa falta ez dakion". "Ez du aktibismoak salbatzen, baizik eta benetako arreta eskuzabalak, pobrearengana senide baten moduan gerturatzeko aukera ematen baitu, gain hartu digun lozorrotik esna gaitezen pobreek eskua luzatzen digutenean".

Jardunaldi hau ospatzera animatzeko, Espainiako Gotzaien Biltzarrak eta Caritasek zenbait material prestatu dituzte. Material horiek *ad hoc* sortutako gune digital batean daude eskuragarri, Elizako elizbarruti, parrokia, komunitate, mugimendu, elkarte eta erakunde guztiek erabil ditzaten.

Deialdi hau aukera berria da hausnarketarako; alegia, gogoeta egiteko nola eman lasaitasuna eta bakea ekarriko dizkien erantzun egokia ziurgabetasunaren eta eskasiaren mende utzita dauden hainbat pertsonari. Helburu horrekin, Jardunaldiaren sustatzaileek keinu hau proposatzen dute: "manifestu edo kredo batean zehaztea nola egin gaitzkeen pobre komunitatean, beste batzuei bizitza oparoa eramateko".

Jardunaldiko [animazio-materialetan](#) azaltzen den moduan, honako hauek hartzen ditu barne aurtengo leloari -"Jesukristo guregatik egin zen pobre"- erantzuteak:

- Erantzun pertsonala eta komunitarioa ematea; izan ere, «zenbat eta gehiago hazi komunitatearen eta batasunaren zentzua bizi-estilo gisa, orduan eta gehiago garatzen da elkartasuna».
- bizitza- eta ondasun-komunitateak izatea, eta komunitate horietan, «elkarrenganako maitasunari esker, batzuek besteen zamak eramatea, inor abandonatuta edo baztertuta gera ez dadin»; horretarako, daukaguna partekatu behar dugu ezer ez dutenekin, baina, haiek egiten dizkiguten ekarpenak onartuz, aldi berean: haien lana, pentsaera, eta bizitzeko eta bizitza ulertzeko modua.
- ekintza-komunitatea izatea; izan ere, "pobreengatik eta justizia sozialagatik arduratzea guztioi eragiten digun konpromisoa da", eta beraz, "inor ezin da salbuetsita sentitu".